



BILBAO FASHION TECH LAB 2014 LEHIAKETAREN OINARRIAK

“FIVE PROTOTYPES”

1. AURKEZPENA

Bilbao Ekintza, E.P.E.L.-ek Bilbao Fashion Tech Lab (BFT Lab) proiektua martxan jarri du OPEN YOUR KOLEKTIBOA KULTUR ELKARTEAREN (aurrerantzean OPEN Espazioa) kolaborazioarekin. Proiektu horretan “Five Prototypes” izeneko esperientzia pilotua dauka bere jarduera-lerroen artean eta moda munduko 5 enpresa eta/edo diseinatzailei zuzenduta dago. Interakzio-diseinuaren metodologietan abiaraziko dituzte partaideak, laguntza pertsonalizatuaren bidez. Teknologia wearable bat duen eta/edo fabrikazio digitaleko teknikak erabiltzen dituen jantzi edota osagarri interaktibo bat egitea da guzti horren helburua.

Parsons Unibertsitateko irakasle ohia den Paola Guimeransek modu pertsonalizatuan lagunduko die parte hartzen duten erakundeei, bai sortze-fasean, bai diseinuan eta garapenean eta bai prototipoaren frogan eta azkentzean. Era berean, BFT Labek prototipoen kostuaren zati bat finantzatuko du.

Komunitatearen arauditik eratorritako betebeharrak errespetatzekotan, Europako Gizarte Funtsek proiektuaren % 50 kofinantzatuko duela jakinarazten da. Horregatik, Funtse horren arauditik eratorritako jarraipenerako eta kontrolerako neurriak aplikatuko dira.

2. NOR AURKEZ DAITEKE?

Modaren sektorean jarduten duten eta egoitza Bizkaian duten edozein enpresa guztiek, profesional autonomoek eta edozein formula juridiko duten elkarteek parte har dezakete “Five Prototypes”-en. Era berean, nahitaezkoa da Administrazio Publikoak kontratatzeko debekua eragin dezakeen baldintzetan ez egotea, sektore publikoaren kontratazioari dagokion legedia aplikatzen delarik. Aitorpen arduratsu baten bidez frogatu beharko dute.

3. AGIRIAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

Partaideek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Izena emateko inprimakia, <http://bilbaofmlab.eu> web orrian beteta,

- Proiektuaren dosierra, ondorengoak barnean hartuta:
 - Pertsona juridikoen kasuan IFZren kopia, ordezkariaren NANarekin batera.
 - Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kopia (JEZ).
 - Hautagaiek euren proposamena hobeto helarazteko komenigarria dela uste duten edozein dokumentazio edo material grafiko.

Dosierra posta elektronikoz bidali beharko da promocionempresarial@bilbaoekintza.bilbao.net helbidera, gai gisa "BFTLab dokumentazioa" jarritz. Bidali ostean, hartu-agiria jasoko du partaideak, ondo heldu dela jakinarazteko. Eskerak aurkezteko epemuga (bai izena emateko inprimakia eta bai dosierra) 2014ko uztailaren 28ko 9:00ak izango da.

Proiektuaren dosierra irakurtzea posible izan dadin, dokumentu guztiak mezu elektronikoko bakarrean bidali beharko dira eta ezingo dute .pdf ez den beste euskarri informatikorik izan. Halaber, partaide guztiek hautatutako talde teknikoaren adostasuna jasoko dute, aurkeztutako dokumentazioa behar bezala jaso eta irakurri dela egiaztatzen duena. Egiaztapen hori ez jasotzeak esan nahi du ezin izan dela kontsultatu bidalitako dokumentazioa, eta, beraz, partaideak ez duela parte hartuko lehiaketan.

Partaideek ematen dituzten datuak egiazkoak ez badira, Bilbao Ekintza eta OPEN Espazioa ahaldunduta egongo dira horiek deialditik baztertzeke, deialdia edozein fasetan dagoela ere.

Bilbao Ekintzaren eta OPEN Espazioaren eskumena izango da aurkeztutako agiriak eskatzen diren baldintzak betetzat jotzeko nahikoa den erabakitzea.

Enpresak emandako barruko informazioari konfidentzialaren tratamendua emango dio proiektua daraman elkarteak.

4. HAUTAKETA

Bilbao Ekintzak, Paola Guimeransek eta OPEN Espazioak osatutako epaimahaiak bost partaide hautatuko ditu ondorengo irizpideetan oinarrituz:

- Proiektuaren indar ekonomikoa eta izaera berritzailea (% 25)
- Produktu edota prozesu baten berritasuna izatea, fabrikazio digitaleko teknika berriak erabiltzea eta/edo wearable teknologiak eta/edo berriak diren material adimendunak izatea (% 25)
- Erakunde sustatzaileak prototipoa garatu eta ekoizteko izango lukeen gaitasuna (% 20)
- Proposamen estetikoa (% 10)
- Iraunkorragoak diren fabrikazio-moduak erabiltzea ahalbidetzea (% 10)
- Pertsonen bizi-kalitatea eta ingurunea hobetzeko interakzio-moduak ahalbidetzea (% 10)

Aurkeztutako proposamenetako batek ere lehiaketa horretan lortu nahi diren helburuak betetzeko behar

den kalitatea ez duela uste bada, Epaimahaiak lehiaketa hutsik geratu dela adierazi ahalko du. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

5. METODOLOGIA, DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN KONTZEPTUAK.

Lan-saioak prototipoaren garapenean oinarrituko dira, betiere dokumentu honen 1. puntuan adierazitakoa jarraituz. Batez ere hautatutako partaideen lokal eta tailerretan egingo dira, makina espezializatuak behar diren kasuetan izan ezik. Kasu horietan lan-saioa beste leku batean egingo da.

BFT Laben talde koordinatzaileak enpresarekin eta teknologia-pertsonalarekin adostuko du lan-egutegia, eta prototipoa bukatzeko epemuga 2014ko abendua izango da.

Bilbao Ekintzak prototipoaren kostuaren % 90 arte finantzatuko du, proiektu bakoitzeko gehienezko BI MILA EURO (2.000,00 €).

Zenbateko horrek materialaren, software-aren, hardware-aren eta teknologo espezializatuek eskainitako aholkularitzaren gastuei aurre egiteko balioko du. Gastu hauek eragindako zergak ere diruz lagundu ahalko dira, partaideak berak ordaindu ezin dituen kasuetan. Aurreko paragrafoan esan bezala, partaide bakoitzari dagokiona proiektua garatu bitartean ordainduko da, partaideak dagozkion fakturak aurkeztu ostean.

Ordainketa elkarre kolaboratzailearen bitartez egingo da, bankuko transferentzia bidez eta partaide bakoitzak adierazitako kontu korrontera.

6. JABETZA INTELEKTUALA ETA INDUSTRIALA

Aurkezten diren proposamenek hirugarrenen jabetza intelektualerako edo industrialerako eskubideekiko erabateko errespetua bermatu beharko dute.

Alde horretatik, partaideak adieraziko du proiektua gauzatzeko egokitu dakizkiokeen jabetza intelektualerako eta industrialerako eskubide guztien titularra dela, eta Bilbao Ekintzak salbuetsiko du zuzeneko zein zeharkako edozein erantzukizunetatik, diseinuaren aukeraketa eta esplotaziotik ondoriozta daitezkeen edozein motatako eztabaidei, borrokei edo liskarrei dagokienez.

Azken emaitza helburu mota guztietarako erabili ahalko da, baita helburu komertzialetarako ere. Proiektuak iraun bitartean garatutako prototipoen jabetza intelektualarena izango da. Merkaturatu ahalko du eta promozio helburuetarako erabili ahalko du, betiere bere adierazpenetan BFT Lab programa aipatuz.

7. PUBLIZITATEA

Bilbao Ekintzak eta OPEN Espazioak egokitzen dituzten hedabideetan argitaratu ahalko dituzte hautatutako proiektuak, ekimen hau ezagutzera emateko asmoz.

Bilbao Ekintzak eta OPEN Espazioak beharrezkotzat jotzen duten publizitatea eman ahalko diete lehiaketaren deialdiari zein izapideei eta amaierako ebazpenari.

8. BETEBEHARRAK, ez betetzea eta DIRUA ITZULTZEA

Partaideek honako konpromiso hauek hartuko dituzte:

- Prototipoa gauzatzeko beharrezkoak diren barruko giza baliabideak ematea.
- Adostutako lan-egutegia betetzea.
- Prototipoak proiektuaren emaitzen azken aurkezpenean erakustea, eta baita proiektuak iraun bitartean edo ostean egon daitezkeen noizean behingo promozio- edo komunikazio-ekitaldietan ere.
- Enpresak egindako komunikazio- eta promozio-ekintza guztietan Bilbao Fashion Tech Lab (BFT Lab) aipatzea, lehiaketa honen helburu den prototipoarekin zerikusia baldin badute.

Lehiaketa honen oinarri diren baldintza eta betebeharrak ez duten partaideak lehiaketatik kanpo geratuko dira. Ondorioz, oinarri hauen 5. atalean bildutako diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko dute eta horrez gain jasotako diru-kopurua itzuli beharko dute.

Erabaki hori Bilbao Ekintzaren Ebazpenaren bidez hartuko da, dagokion txostena(k) bidali ostean.

9. DATU PERTSONALEN BABESA

1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen denaren arabera, Bilbao Ekintzak hau jakinarazten du: lehiaketa honetan parte hartzeko dokumentazioan adierazitako datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira eta fitxategi hori Bilbao Ekintza, E.P.E.L. sozietatearen (Nafarroa kalea 5, 48001 Bilbo) titulartasunekoak izango da eta eskaintzen dituen zerbitzuak kudeatzeko erabiliko ditu. Horrez gain, datuen segurtasun osoa ziurtatzeko beharrezkoak diren segurtasun-neurriak betetzen ditu eta baimena ematen du bere datuak aholkularitza, organismo publiko, fundazio, elkarte edo finantza-erakundeei lagatzeko. DBLOk berariaz aitortzen dituen datuak eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta aurka egiteko eskubideak gauzatu ahal izango dira. Horretarako, Bilbao Ekintzari idatzi bat bidaliko zaio.

10. OINARRIAK ONARTZEA

Deialdi honetan parte hartze hutsak berekin dakar oinarri hauek osorik onartzea eta Bilbao Ekintzak oinarri hauei lotutako gaien edozein zalantza argitzeko edo edozein interpretazio lotesle egiteko ahalmena duela aitortzea, alde horretatik haren erabakiak apelaezinak izango direla.

Bilbon, 2014ko ekainaren 30ean.